# getxoBerri

Getxo
bizi ezazu

@GetxoUdala
#GetxoBiziEzazu

Ejemplar gratuito

Nº 1801
www.getxo.eus

Diciembre 12
>> Diciembre 22
2024


## / Destacados


> Ampliado a todo Getxo el otorgamiento de uso de las plazas de garaje de la Plaza San Nicolás (Pág.2)
> Getxo Kultura cerrará 2024 con una cifra récord en la programación de artes escénicas (Pág.3)
> Argia Fundazioa organiza “Navidad compartida” (Pág.4)




* Premios Voluntariado 2024 (Pág. 4)

## A-GENDA

**Getxolandia-Parque Infantil de Navidad.** Del 20 de diciembre al 6 de enero, en la plaza de la Estación de Las Arenas.

**Teatro.** Viernes 20, a las 19:30h, en Muxikebarri, “Miñan” con Ibrahima Balde y Amets Arzallus (euskera). 8€.

**Getxo se consolida como el segundo municipio en número de bicis y lidera el uso del servicio**

# Inaugurada una nueva estación de BizkaiBizi en Neguri, junto al metro

Una nueva estación de BizkaiBizi está ya operativa en la calle Zarrenebarri, junto a la entrada del metro de Neguri. Esta nueva estación es la decimoséptima en el municipio, que actualmente cuenta con 120 bicicletas dentro de este servicio municipal y de la Diputación Foral de préstamo de bicicleta eléctrica pública. Con la incorporación de Neguri, el sistema alcanza las 81 estaciones distribuidas en los 9 municipios del área metropolitana que forman parte del servicio.

La estación cuenta con 16 puntos de anclaje y está preparada para admitir un mayor número de bicicletas en caso de que todos los anclajes se encuentren ocupados.

Durante el acto de inauguración este miércoles, día 11, la alcaldesa Amaia Aguirre y la diputada foral de Movilidad, Sonia Pérez, subrayaron que “*con BizkaiBizi se sigue avanzando hacia una Bizkaia más sostenible y conectada, acercando soluciones de transporte ecológicas, limpias y prácticas e impulsando hábitos responsables*”.




**Getxo, referente en BizkaiBizi**

Getxo se ha consolidado como el segundo municipio en número de bicicletas y lidera el uso del servicio con un acumulado de 371.366 usos en el primer año, una cifra reseñable en el marco de los 1,4 millones de usos registrados en los nueve municipios participantes del sistema. Además, 3 de las 5 estaciones de BizkaiBizi más utilizadas están en en el municipio: Areeta, que ocupa el primer lugar; Puente Bizkaia, el tercero; y Algorta, el quinto. Cada vez son más las personas usuarias del mismo, más de 5.000, y son cerca de 40.000 los usos registrados al mes. Amaia Aguirre recordaba, por último, que se está realizando la unión del bidegorri de Getxo con Leioa por la Ría, por lo que en breve se podrá llegar a Bilbao en bicicleta de manera segura.

# Nuevo reconocimiento a agentes culturales del municipio en los XIV Premios “AixeGetxo!”




El Ayuntamiento ha hecho entrega, en Muxikebarri, de los premios “Aixe Getxo!” a la Cultura que, en su décimocuarta edición, ha reconocido a 13 nuevas personas e iniciativas que trabajan en la Cultura en el municipio. Los galardones se otorgan en distintas categorías, que van desde las Artes Escénicas a la Educación en Valores; desde la Música Clásica a la Arquitectura, la Gastronomía o la Ciencia y la Innovación.

| GALARDONES 2024 | |
|---|---|
| **Artes Visuales y Audiovisuales** | Laida Lertxundi de Prado, artista y cineasta |
| **Artes Plásticas** | Higinia Garay, ilustradora y diseñadora gráfica |
| **Artes Escénicas** | Olatz Ganboa, actriz |
| **Música Clásica y Contemporánea** | Luminita Duca Ghencea, pianista |
| **Música Actual** | Paula Mattheus, cantautora |
| **Literatura** | Alaitz Leceaga, escritora |
| **Diseño** | Benicio Aguerrea, diseñador industrial |
| **Gastronomía** | Javier Izarra, chef |
| **Cultura en la Educación y Valores** | Lilura Abesbatza, único coro infantil y juvenil de Getxo |
| **Cultura Científica e Innovadora** | Agustín Sánchez Lavega, científico |
| **Patrimonio Cultural, Tangible e Intangible** | Manu Gómez Martín y Oskar Fernández García, dinamizadores del ciclo de “cine-club” del Aula de Cultura |
| **Aixegaztea** | Eva Kareaga Cortacans, profesional de la arquitectura y las artes |
| **Trayectoria Profesional y Artística** | Pedro Guallar Otazua, organista, pianista y profesor |

# A-GENDA

**DICIEMBRE 12 JUEVES**

**Zinemabarri.** A las 19:00h, en Muxikebarri, proyección de "La mami" (castellano), de Laura Herrero. Mayores de 7 años. 3,50€.

**DICIEMBRE 13 VIERNES**

**El club de los cuentistas.** A las 19:00h, en el Aula de Cultura de Algorta (Villamonte) reunión de personas adultas que quieren oir o contar cuentos.

**Cine Club.** A las 20:30h, en la Escuela de Música Andrés Isasi de Las Arenas, proyección de "Yo capitán" (VOS) de Matteo Garrone. Mayores de 12 años. 3,50€.

**DICIEMBRE 14 SÁBADO**

**Storytime: Santa's Elves.** A las 11:00h, en el Aula de Cultura de Algorta (Villamonte), cuentacuentos en inglés. 3-7 años. Inscripción: getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

**Teatro.** A las 20:00h, en Muxikebarri, "La dama duende" (castellano) con Mic Producciones. 10€.

**Concierto. Getxo Eszena Irekia.** A las 19:00h, en Muxikebarri, "Hungría Hollywood" con Botond Ódor (vocalista), Luminita Duca (pianista) y Lucía Astigarraga (narradora). 12€.

**Concierto solidario.** A las 19:30h, en la Escuela de Música Andrés Isasi de Las Arenas, actuación de "Gospel Bilbao" a favor de la asociación Bidesari. 10€.

**Concierto navideño.** A las 20:00h, en la iglesia de El Redentor de Algorta, concierto a cargo de la Asociación coral Urepel Abesbatza de Sopela y los coros BBKantuz y Club Deportivo de Bilbao. Entrada libre.

**Dantza plaza.** A las 19:00h, en la plaza de las Escuelas de Las Arenas, romería con los grupos de danzas del municipio: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia y Zasi Eskola.

**Marcha nórdica.** A las 10:00h, desde el Batzoki de Algorta (si el tiempo lo permite), marcha nórdica organizada por Itxartu Taldea. Para apuntarse: nw.itxartu@gmail.com

**DICIEMBRE 15 DOMINGO**

**Zinematxiki.** A las 12:00h, en Muxikebarri, "Robotia" (castellano). 2,50€.

**Cine infantil.** A las 17:00h, en la Escuela de Música Andrés Isasi de Las Arenas, "La isla de las aves. Eli y otros cuentos" (castellano). 2,50€.

**Teatro infantil.** A las 18:00h, en Muxikebarri, "La bruja rechinadientes" (castellano) con Katua & Galea Teatro. Mayores de 4 años. 6€.

**DICIEMBRE 17 MARTES**

**Concierto navideño.** A las 20:00h, en la parroquia de Santa Ana de Las Arenas, concierto a cargo de la coral Ondarreta y la orquesta Arima Kamerata.

**Charla.** A las 19:30h, en el Aula de Cultura de Villamonte, charla sobre "Historia del Puerto de Bilbao", a cargo de José Luis Navajas. Organiza: Mugabarik.

**DICIEMBRE 18 MIERCOLES**

**Concierto navideño.** A las 19:30h, en la parroquia de El Redentor de Algorta, concierto a cargo de la coral Ondarreta y la orquesta Arima Kamerata.

**Presentación de libro.** A las 19:00h, en el Aula de Cultura de Algorta (Villamonte), presentación de los libros "Terranova. La odisea ballenera" y "Magallanes frente a Elcano", a cargo de su autor Sabino Laucirica (castellano).

**Versadas. Club de poesía.** A las 19:00h, en el Aula de Cultura de Algorta (Villamonte), sesión sobre la obra de "Antonio Machado" (castellano).

**DICIEMBRE 19 JUEVES**

**Concierto navideño.** A las 20:15h, en la iglesia de los Trinitarios de Algorta, a cargo de los coros Irutasun (Algorta), Itxartu (Algorta) y Lagun Artea (Sopela).

**La hora del cuento.** A las 18:00h, en Romo Kultur Etxea, "Euskal Mitologia" con Sorgina txirulina (euskera). 4-8 años.

**Zinemabarri.** A las 19:00h, en Muxikebarri, proyección de "Bidasoa 2018-2023" (VOS), de Fermin Muguruza. Mayores de 12 años. 3,50€.

**DICIEMBRE 20 VIERNES**

**Getxolandia-Parque Infantil de Navidad.** Hasta el 6 de enero, en la plaza de la Estación de Las Arenas.

**Teatro.** A las 19:30, en Muxikebarri, "Miñan" con Ibrahima Balde y Amets Arzallus (euskera). Entrada: 8€.

**IV ciclo navideño de órgano.** A las 20:00h, en la parroquia de San Nicolás de Bari de Algorta, concierto a cargo de Javier Morena Lorenzo.

**Cine Club.** A las 20:30h, en la Escuela de Música Andrés Isasi de Las Arenas, proyección de "Los que se quedan" (castellano) de Alexander Payne. Mayores de 12 años. 3,50€.

**DICIEMBRE 21 SABADO**

**Concierto navideño.** A las 19:00h, en Muxikebarri, concierto a cargo del coro Biotz Alai.

**Concierto Jazz.** A las 19:30h, en la Escuela de Música Andrés Isasi de Las Arenas, "2024 Bejerano Station". Cantantes invitados/as: Izaskun Alzola, Saul Santolaria y Mercedes Echevarri "Ce". Entrada: 5€.

**Teatro.** A las 20:00h, en Muxikebarri, "Desplaza-Dos", a cargo de la compañía Euri artean (castellano). Entrada: 6€.

**DICIEMBRE 22 DOMINGO**

**Olentzero. Neguri-Gobela.** A las 17:30h, en zona Garbigune-Parque Gernika, pasacalles con Olentzero y Mari Domingi. A las 19:00h, en parque Gernika, recibimiento a Olentzero y Mari Domingi.

**Danza.** A las 19:00h, en Muxikebarri, "Coppélia", a cargo de Arte Ederra Ballet Gaztea. Entrada: 5€.

**Zinematxiki.** A las 12:00h, en Muxikebarri, "Elkano lehen mundu bira" (euskera). 2,50€.

**Concierto navideño.** A las 19:45h, en la parroquia Nuestra Señora de Las Mercedes, en Las Arenas, actuación de Ars Canticum ensemble, coro y orquesta de cámara.

**Servicio de atención telefónica del Gobierno Vasco a víctimas de malos tratos: 900 840 111**


STAFF

Getxoberri es una publicación editada por el Area de comunicación del Ayuntamiento de Getxo - Getxoko Udala, en la que se recogen cada semana las noticias e informaciones relativas a la vida municipal y local.

Redactora jefe: Itziar Aguayo.
Redacción: Nekane Ardanza.

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.
C / Urgull s/n 4º. T. 94 466 03 20.
48991 Getxo.
E-mail: getxokoudalaprentsa@getxo.eus
Maquetación: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL
Impresión: Comeco Gráfico Norte S.L.U.
Distribución: Mediapost
Depósito legal: BI-388-87


**El plazo de presentación de solicitudes estará abierto hasta el día 3 de febrero**

# Ampliado a todo Getxo el otorgamiento de uso de las plazas de garaje de la Plaza San Nicolás

El Ayuntamiento ha ampliado el área de influencia a todo el municipio para el otorgamiento con publicidad y concurrencia de autorizaciones de uso de plazas de aparcamiento del parking sito en la plaza San Nicolás de Algorta. Las solicitudes se podrán presentar hasta el día 3 de febrero.

Los requisitos son similares a cuando se abrió el plazo, el pasado verano, para personas mayores de edad empadronadas en Getxo con una antigüedad mínima de un año y cuyo domicilio, en el que debían residir habitualmente, quedaba entonces dentro de la zona de influencia del aparcamiento. De las 95 plazas ofertadas se otorgaron 26. Por ello, salen ahora las 69 restantes.



El plazo de duración de la autorización será de dos años, a partir de la fecha de la formalización del contrato que se prorrogará por plazo de dos años, es decir, hasta un máximo total de 4 años.

Existirá un precio-tasa individualizada para cada una de las parcelas elegidas, en función de los metros cuadrados de cada una, que oscilará entre los 65 y 175 €/mes, y se deberá abonar el IBI, estableciéndose una fianza obligatoria que consistirá en el importe en metálico de dos mensualidades de la tasa.

El modelo de solicitud se encuentra en la página web municipal (www.getxo.eus) y también en la Oficinas de Atención Ciudadana.

Además, la persona solicitante deberá tener permiso de conducir en vigor y ser titular o usuario exclusivo de un turismo.

Las vecinas y vecinos interesados en las cuatro plazas para vehículos de personas con movilidad reducida deberán poseer la "Tarjeta de estacionamiento para personas discapacitadas" y tener a su disposición un vehículo.




## Entregada la cesta de productos de Comercio Justo

**La cesta de productos locales y de Comercio Justo sorteada entre las personas que consumieron café y cacao en los 46 establecimientos que este año han participado en la iniciativa "Getxo se despierta con café y cacao de Comercio Justo" ha sido para Jorge Zamakola Atxa (tercero por la izquierda), que la ha recibido de manos de la concejala de Cohesión Social, Carmen Díaz, en el establecimiento donde realizó la consumición, en Algorta. Esta actividad se desarrolló del 18 al 24 de noviembre, dentro del programa solidario "Getxotik Mundura Mundutik Getxora", y se enmarca en el trabajo por la consecución de los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS): el 1 ("Poner fin a la pobreza"), el 5 ("Promoción de la Igualdad"), el 10 ("Reducción de las desigualdades") y el 12 ("Producción y consumo responsable").**

# Obras en la red de Gobelaurre

Esta semana han comenzado los trabajos para la renovación del nudo de la red de abastecimiento de agua situado en el cruce entre las c/Gobelaurre y Luis Lopez Osés, de Romo. Las labores no suponen ninguna afección al tráfico rodado, exceptuando un estrechamiento de carril. El plazo de ejecución de la obra es de 2 meses.
La actuación está encaminada a garantizar y restablecer el suministro, y posibilitar futuras intervenciones, al objeto de poder ejecutar a posteriori, una vez realizada esta primera actuación, la renovación del conducto de Luis López Osés.






# Declaración del Día del Euskera

Con motivo de la celebración el 3 de diciembre, del Día Internacional del Euskera, la Junta de Portavoces del Ayuntamiento aprobó una Declaración Institucional con los votos favorables de EAJ/PNV, PP, PSE-EE y Elkarrekin Podemos, y el voto contrario de EH Bildu. Bajo el título, "Bat, bi...ehun! Euskararen Geroa ehunduz", destacó que el ejercicio de tejer el euskera es responsabilidad de todas las personas, instituciones públicas y agentes sociales; que la acción es imprescindible y que el euskera necesita movimiento para mantener su esencia y vitalidad. Texto íntegro: https://labur.eus/TI5rI



Fue seleccionado en la convocatoria “Getxo Eszena Irekia” del Aula de Cultura

# El espectáculo musical “Hungría Hollywood” se podrá escuchar este sábado, día 14, en Muxikebarri

El tenor Botond Ódor, la pianista Luminita Duca y la narradora Lucía Astigarraga serán los protagonistas del espectáculo “Hungría Hollywood”, que se podrá ver este sábado, día 14, a las 19:00h, en la sala Areeta de Muxikebarri.
Por sorprendente que parezca, en la primera mitad del siglo XX, la música de Centro Europa se coló en la industria cultural de Hollywood. Toda esa creatividad que en el viejo continente había decaído, renació en tierra americana y ahora es el tenor Botond Ódor quien las canta en su lengua materna. Le acompaña la reconocida pianista Luminita Duca y la narradora Lucía Astigarraga, que aportarán contexto a la obra.
Este espectáculo, cuya entrada cuesta 12€, fue seleccionado en la convocatoria Getxo Eszena Irekia de Getxo Kutura.

## Concierto Gospel en Las Arenas

La Escuela de Música “Andrés Isasi” de Las Arenas acogerá este sábado, día 14, a las 19:30h, un concierto solidario a cargo del coro Gospel Bilbao, fundado en 2012 y dirigido desde 2016 por Alain Gallego.
El recital, que tendrá un precio de entrada de 10€, está organizado por el grupo de Pastoral Penitenciaria de la parroquia Nuestra Señora de Las Mercedes, que destinará la recaudación íntegra a Bidesari y sus pisos tutelados. Bidesari es una entidad sin ánimo de lucro que surge para dar respuesta a la situación de exclusión que atraviesan las personas privadas de libertad para su recuperación personal e integración social.

## “La Bruja Rechinadientes”

La compañía Katua@Galea Teatro presentará el montaje de títeres “La Bruja Rechinadientes”, para mayores de 4 años, este domingo día 15, a las 18:00h, en Muxikebarri. Inspirada en los clásicos cuentos de brujas y en el folklore, aborda temas universales como el miedo, la valentía y la astucia. Entrada: 6€.



## A escena “La dama duende”

**Muxikebarri acogerá este sábado, día 14, a partir de las 20:00h, la representación de la obra teatral “La dama duende”, de la compañía Mic Producciones. Es una obra dirigida al público adulto y la entrada cuesta 10€. “La dama duende” es la historia de una mujer encerrada en un piso, donde gran parte de la acción se desarrolla a oscuras. Este montaje nos traslada al Madrid de 1942, donde proliferan asesinatos y misterios sin resolver, a la calle Fuencarral y sus hileras de pisos mal iluminados, a la Literatura de aparecidas y sacamantecas, de historias publicadas en El Caso y de escalofriantes relatos de radio.**








Tras las capitales, es el municipio que desarrolla una mayor actividad cultural en la CAV

# Getxo Kultura cerrará 2024 con una cifra récord en la programación de artes escénicas

A falta de concluir diciembre, la programación de artes escénicas en Getxo sitúa a nuestro municipio en una posición muy destacada dentro de la escena cultural vasca. Con más de 180 espectáculos de teatro, música y danza, entre otras, este año el público ha tenido acceso a una extensa oferta.

Así lo confirma el programa de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia, ya que, en el ámbito territorial, Getxo Kultura ha sido una de las tres entidades públicas en recibir la máxima cuantía en ayudas para espectáculos en vivo (59.000€), siendo Getxo el segundo municipio que mayor presupuesto ha destinado a cachets, con más de 820.000€ para esta finalidad, frente a los 4.454.000 y 352.000€ dispuestos por el Teatro Arriaga de Bilbao y Barakaldo Antzokia, respectivamente.

Además, según datos del Observatorio Vasco de la Cultura, Getxo se sitúa en cuarta posición en cuanto al número total de eventos culturales programados (artes en vivo, cine, y actividades socio-culturales), solamente por detrás de las tres capitales de provincia.




## Mikel Sorli presenta “La hija del indiano”

**El vecino de Getxo Mikel Sorli ha presentado, en el Aula de Cultura de Algorta, el libro “La hija del indiano”. Es el cuento que da título al libro y narra la misteriosa desaparición de Rosa, la hija de un indiano enriquecido en ultramar que ha retornado al pequeño pueblo de la costa cantábrica que le vio nacer. El volumen recoge una serie de cuentos de diferentes tamaños (historias ficticias de diferentes épocas y contenidos). Siete de ellos, los más largos, cubren cada uno un único epígrafe, mientras que el resto, hasta un total de 19, recoge historias más cortas agrupadas en un contenido marco.**

# Argia Fundazioa organiza "Navidad compartida"

Por segundo año consecutivo, Argia Fundazioa, en colaboración con el Ayuntamiento, pondrá en marcha la iniciativa "Navidad compartida", con el objetivo principal de reunir alrededor de una mesa a aquellas personas que, por diferentes razones, no tienen la oportunidad de celebrar estas fechas, para que puedan disfrutar de un menú y compañía.

Este año, la celebración será el próximo domingo, día 22 de diciembre, a partir de las 11:00h, en la sede de Argia Fundazioa, en la calle Trinidad, nº 11, de Algorta, donde se ofrecerán comida, música y diversas actividades.

El objetivo de la iniciativa es poder ofrecer a un centenar de personas un espacio de encuentro, tal y como se consiguió el año pasado. Para ello, Argia solicita la colaboración de personas voluntarias de diferentes maneras: bien donando tiempo ese día bien realizando algún taller durante la jornada o aportando fondos.

Las personas interesadas en colaborar con este proyecto solidario puede ponerse en contacto con la fundación a tráves del número de teléfono 686 10 05 29.



# El programa Alehop de Argia Fundazioa y el promotor del Rugby Inclusivo, Aitor Arri, premios Voluntariado 2024

El programa de sensibilización sobre la salud mental, Alehop, de Argia Fundazioa, ha recibido el premio de Voluntariado 2024, en modalidad colectiva, y el fundador y responsable del proyecto Rugby Inclusivo, Aitor Arri Axpe, en modalidad individual, como reconocimiento a su trayectoria. Los premios de la XXXI edición fueron concedidos por la asociación de entidades voluntarias de Getxo, SAREKIDE, en colaboración con el Ayuntamiento, en un acto celebrado el martes 10, en Romo Kultur Etxea. Además, Sarekide y el Ayuntamiento reconocieron a Juan José Quiñones Rodríguez, de la asociación Urtealaiak, su trayectoria como presidente de Sarekide durante 13 años, cargo que este año ha pasado a Idoia Loroño Goienetxe, de la asociación AHIDA. El Encuentro contó con la presencia de la primera vice alcaldesa, Keltse Eiguren, y la concejala de Cohesión Social, Carmen Díaz, entre otros/as representantes institucionales. Díaz puso en valor la labor de las y los voluntarios, destacando que "*poder contar con personas voluntarias que dedican su tiempo a otras es un regalo y un privilegio, el único camino para la construcción de un mundo más humanista. Por eso tiene sentido celebrar el voluntariado, celebrar el compromiso social, reconocerlo, agradecerlo y ponerlo en valor*".

El programa Alehop, a través de charlas en centros educativos, asociaciones, medios de comunicación o a agentes sociales y políticos, lucha contra los estigmas asociados a las enfermedades mentales. Tres mujeres y tres hombres ofrecen una media de 30 charlas anuales en diferentes lugares del País Vasco.

Por otra parte, Aitor Arri Axpe es el fundador y responsable del proyecto Rugby Inclusivo del Club Getxo Errugbia, que surgió en 2016 con el objetivo de abrir una puerta a la inclusión de las personas con discapacidad intelectual por medio del rugby, tras conocer la experiencia de Gales. Este proyecto intergeneracional e intercultural apuesta por la diversidad como valor y ha servido de referente a nivel estatal para la puesta en marcha de proyectos similares.

## DEPORTES

# XIV Travesía de Navidad de Getxo

El próximo domingo, día 22 de diciembre, el club Getxo Igeriketa Waterpolo, con la colaboración de Getxo Kirolak, organizará la XIV Travesía Getxo de Navidad entre el Puerto Viejo y la playa de Ereaga. La prueba, de 300m, comenzará a las 11:30h y se disputará en categoría absoluta y en la de veteranos.
Las personas interesadas pueden consultar las bases completas de la competición y realizar la inscripción, antes del próximo miércoles día 18 en la página web www.getxoiw.com.





## La Regata del Gallo cierra el calendario de vela 2024 en el Abra

**La tradicional Regata del Gallo cerrará el proximo sábado, día 21, el calendario de vela de 2024 en aguas del Abra. Organizada por el Marítimo del Abra (RCMA-RSC), en colaboración con el Ayuntamiento, entre otros organismos, la prueba reunirá a casi medio millar de regatistas y un centenar de barcos que durante la salida volverán a navegar bajo el Puente Colgante, ofreciendo al público en general una espectacular y clásica imagen de este deporte en Bizkaia, con sus amplias velas de color desplegadas al viento. Además de la regata para la clase Cruceros y J80 que comenzará a las 12:00h, también habrá un taller de nudos en las dos terrazas del Puente Colgante (Las Arenas y Portugalete, de 11:00 a 12:30h) y una exhibición de la clase Optimist (12:30 a 13:00h) por parte de las y los jóvenes regatistas de la Escuela de Vela José Luis de Ugarte.**

# XLII Cross de Andra Mari de Itxas Argia

La Asociación Itxas Argia organiza el domingo 29 de diciembre, a las 11:00h, la XLII edición del Cross de Andra Mari. La carrera, de carácter popular, se llevará a cabo sobre una distancia de 8,8km y tendrá salida y llegada en el polideportivo de Andra Mari. Media hora antes, a las 10:30h, se disputará una carrera de 2,5km dirigida a niños y niñas nacidos a partir de 2010. Las inscripciones se pueden realizar hasta el 25 de diciembre en www.itxas-argia.com o través de FB o IG de la asociación.



# getxoBerri

Getxo bizi ezazu
@GetxoUdala #GetxoBiziEzazu
Doako alea
1801 zk.
www.getxo.eus
Abenduak 12 >> Abenduak 22
2024


## / Nabarmentzekoak


- > Getxo osora zabaldu da San Nikolas plazako aparkalekuen erabilera emateko eragin eremua (2. or.)
- > Arte eszenikoen programazioan zifra errekor batekin itxiko du 2024a Getxo Kulturak (3. or.)
- > Argia Fundazioak "Eguberri partekatua" antolatu du (4. or.)




* 2024ko Boluntariotza sariak (4. orr)

## A-GENDA

**Getxolandia-Umeentzako Gabonetako Parkea.** Abenduraren 20tik urtarrilaren 6ra arte, Areetako Geltokia plazan.

**Antzerkia.** Hilak 20, ostirala, 19:30ean, Muxikebarrin, "Miñan" Ibrahima Balde eta Amets Arzallusekin (euskeraz). 8€.

**Getxo bigarren udalerria da bizikleta kopuruari dagokionez, eta zerbitzuaren erabileraren buru da**

# BizkaiBiziko estazio berria inauguratu da Negurin, metroaren ondoan

BizkaiBiziko estazio berri bat erabil daiteke dagoeneko Zarrenebarri kalean, Neguriko metro geltokiko sarreraren ondoan. Estazio berria udalerrian dagoen hamazazpigarrena da, gaur egun 120 bizikleta dituena bizikleta elektriko publikoa mailegatzeko Udalaren eta Foru Aldundiaren zerbitzuaren barruan. Neguri gehituta, zerbitzua osatzen duten metropoli-eremuko 9 udalerrietan banatutako 81 estazioetara iristen da sistema.

Estazioak 16 ainguraleku ditu, eta ainguraketa guztiak okupatuta egonez gero bizikleta gehiago onartzeko prest dago.



Estazio berriaren inaugurazio ekitaldian, iragan asteazkenean, hilaren 11n, Amaia Aguirre alkateak eta Sonia Pérez Mugikortasuneko foru diputatuak azpimarratu zuten BizkaiBizirekin Bizkaia jasangarriago eta konektatuago baterantz aurrera egiten jarraitzen dela, garraio soluzio ekologiko, garbi eta praktikoak hurbilduz eta ohitura arduratsuak bultzatuz.

**Getxo, erreferente BizkaiBizin**

Getxo bigarren udalerria da bizikleta kopuruari dagokionez, eta zerbitzuaren erabileraren buru da. Lehen urtean 371.366 erabilera izan ditu, kopuru aipagarria, parte hartu duten bederatzi udalerrietan erregistratutako 1,4 milioi erabileren esparruan. Gainera, Getxo nabarmentzen da BizkaiBizi zerbitzuko udalerrien artean, gehien erabiltzen diren 5 estazioetatik 3 bere lurraldean baitaude: Areeta, lehen postuan dago; Bizkaia Zubia, hirugarrenean; eta Algorta, bosgarrenean. Horren ondorioz, gero eta erabiltzaile gehiago daude, 5.000 baino gehiago, eta 40.000 erabilera inguru daude erregistratuta hilean. Azkenik, Amaia Aguirrek gogorarazi zuen Getxoko bidegorria Leioakoarekin lotzen ari direla Itsasadarretik, eta, beraz, laster bizikletaz iritsi ahal izango dela Bilbora modu seguruan.

# XIV. AixeGetxo! Sarietan herriko kultur eragilerentzako errekonozimendu berria




Udalak Kulturari Aixe Getxo! sariak eman dizkio Muxikebarrin. Hamalaugarren edizioak udalerrian kulturan lan egiten duten 13 pertsona eta ekimen saritu ditu. Sariak hainbat kategoriatan banatzen dira, horien artean, Arte Eszenikoak, Balioen Hezkuntza, Musika Klasikoa, Arkitektura, Gastronomia edo Zientzia eta Berrikuntza.

| 2024ko SARIAK | |
|---|---|
| **Ikusizko eta Ikus-entzunezko Arteak** | Laida Lertxundi de Prado, artista y cineasta |
| **Arte Plastikoak** | Higinia Garay, ilustradora y diseñadora gráfica |
| **Arte Eszenikoak** | Olatz Ganboa, actriz |
| **Musika Klasiko eta Garaikidea** | Luminita Duca Ghencea, pianista |
| **Gaur Egungo Musika** | Paula Mattheus, cantautora |
| **Literatura** | Alaitz Leceaga, escritora |
| **Diseinua** | Benicio Aguerrea, diseñador industrial |
| **Gastronomla** | Javier Izarra, chef |
| **Kultura Hezkuntzan eta Balioetan** | Lilura Abesbatza, único coro infantil y juvenil de Getxo |
| **Zientzia eta Berrikuntza Kultura** | Agustín Sánchez Lavega, científico |
| **Kultura Ondarea, Hautemangarria eta Hautemangaitza** | Manu Gómez Martín y Oskar Fernández García, dinamizadores del ciclo de "cine-club" del Aula de Cultura |
| **Aixegaztea** | Eva Kareaga Cortacans, profesional de la arquitectura y las artes |
| **Ibilbide Profesional eta Artistikoa** | Pedro Guallar Otazua, organista, pianista y profesor |

# A-GENDA

**ABENDUAK 12 OSTEGUNA**

**Zinemabarri.** 19:00etan, Muxikebarrin, Laura Herreroren "La mami" (AJB). 7 urtetik aurrera. 3,50€.

**ABENDUAK 13 OSTIRALA**

**Kontularien kluba.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte) ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen bilera.

**Zine kluba.** 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Matteo Garroneren "Yo capitán" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

**ABENDUAK 14 LARUNBATA**

**Storytime: Santa's Elves.** 11:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), ipuin kontalaria (ingelesez). 3-7 urte. Izena emateko: getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "La dama duende" (gaztelaraz) Mic Producciones-ekin. 10€.

**Kontzertua. Getxo Eszena Irekia.** 19:00etan, Muxikebarrin, "Hungría Hollywood": Botond Ódor (abeslaria), Luminita Duca (pianista) eta Lucía Astigarraga (narratzailea). 12€.

**Kontzertu solidarioa.** 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Gospel Bilbao" taldearen emanaldia Bidesari elkartearen alde. 10€.

**Gabon kontzertua.** 20:00etan, Algortako Kristo Erosle elizan, Sopelako Urepel Abesbatza eta BB-Kantuz eta Bilboko Club Deportivo koruen eskutik. Sarrera librea.

**Dantza plaza.** 19:00etan, Areetako Eskoletako plazan, erromeria udalerriko Dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

**Ipar martxa.** 10:00etan, Algortako Batzokitik (eguraldiak uzten badu), ipar martxa Itxartu Taldeak antolatuta. Izena emateko: nw.itxartu@gmail.com

**ABENDUAK 15 IGANDEA**

**Zinematxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Robotia" (gaztelaniaz). 2,50€.

**Haur zinea.** 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan,"La isla de las aves. Eli y otros cuentos" (gaztelaniaz). 2,50€.

**Haurrentzako antzerkia.** 18:00etan, Muxikebarrin, "La bruja rechinadientes" (gaztelaniaz) Katua & Galea Teatrorekin. 4 urtetik aurrera. 6€.

**ABENDUAK 17 ASTEARTEA**

**Gabon kontzertua.** 20:00etan, Areetako Santa Ana parrokian, Ondarreta abesbatzaren eta Arima Kamerata orkestraren kontzertua.

**Hitzaldia.** 19:30ean, Villamonteko Kultur Aretoan, "Historias del Puerto de Bilbao" gaiari buruzko hitzaldia, José Luis Navajasen eskutik. Antolatzaile: Mugabarik.

**ABENDUAK 18 ASTEAZKENA**

**Gabon kontzertua.** 19:30ean, Algortako Kristo Erosle parrokian, Ondarreta abesbatza eta Arima Kamerata orkestrarekin.

**Liburu-aurkezpena.** 19:00etan, Algortako Kultur Aretoan (Villamonte), "Terranova. La odisea ballenera" eta "Magallanes frente a Elcano" liburuen aurkezpena, bere egile Sabino Laucircaren eskutik (gaztelaniaz).

**Versadas. Poesia kluba.** 19:00etan, Algortako Kultur Aretoan (Villamonte), Antonio Machado-ren obari buruzko Saioa (gaztelaniaz).

**ABENDUAK 19 OSTEGUNA**

**Gabon kontzertua.** 20:15ean, Algortako Irutasun elizan, Irutasun (Algorta), Itxartu (Algorta) eta Lagun Artea (Sopela) abesbatzekin.

**Ipuinaren ordua.** 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Euskal Mitologia" Sorgina txirulinarekin. 4-8 urte.

**Zinemabarri.** 19:00etan, Muxikebarrin, Fermin Muguruzaren "Bidasoa 2018-2023"-ren emanaldia (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

**ABENDUAK 20 OSTIRALA**

**Getxolandia-Umeentzako Gabonetako Parkea.** Urtarrilaren 6ra arte, Areetako Geltokia plazan.

**Antzerkia.** 19:30ean, Muxikebarrin, "Miñan" Ibrahima Balde eta Amets Arzallusekin (euskeraz). Sarrera: 8€.

**Gabonetako IV. organo zikloa.** 20:00h, Bariko San Nikolas parrokian, kontzertua Javier Morena Lorenzoren eskutik.

**Zine Klub.** 20:30h, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Alexander Paynen "Los que se quedan" filmaren proiekzioa (gaztelaniaz). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

**ABENDUAK 21 LARUNBATA**

**Gabon kontzertua.** 19:00h, Muxikebarrin, Biotz Alai abesbatzaren emanaldia.

**Jazz kontzertua.** 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "2024 Bejerano Studio". Abeslari gonbidatuak: Izaskun Alzola, Saul Santolaria eta Mercedes Echevarri "Ce". Sarrera: 5€.

**Antzerkia.** 20:00h, Muxikebarrin, "Desplaza-Dos", Euri artean konpainiaren eskutik (gaztelaniaz). Sarrera: 6€.

**ABENDUAK 22 IGANDEA**

**Olentzero. Neguri-Gobela.** 17:30ean, Garbigunea-Gernika parkean, kalejira Olentzero eta Mari Domingirekin. 19:00etan, Gernika parkean, harrera Olentzero eta Mari Domingiri.

**Dantza.** 19:00h, Muxikebarrin, "Coppélia", Arte Ederra Ballet Gaztearekin. Sarrera: 5€.

**Zinematxiki.** 12:00h, Muxikebarrin, "Elkano lehen mundu bira". 2,50€.

**Gabon kontzertua.** 19:45ean, Areetako Ama Mesedeetako parrokian, Ars Canticum ensemble, koru eta ganbera-orkestraren emanaldia.

**Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111**

STAFF

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.
Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo.
e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus
Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL.
Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U.
Banaketa: Mediapost.
Gordailu legala: BI-388-87

Eskabideak aurkezteko epea otsailaren 3ra arte egongo da zabalik

# Getxo osora zabaldu da San Nikolas plazako aparkalekuen erabilera emateko eragin eremua

Udalak eragin-eremua Getxoko udalerri osora zabaldu du, Algortako San Nikolas plaza azpian dagoen aparkalekuko plazak erabiltzeko baimenak publizitate eta konkurrentzia bidez emateko. Eskabideak aurkezteko epea zabalik dago eta otsailaren 3ra arte luzatuko da.

Baldintzak joan den udan Getxon erroldatuta dauden, gutxienez urtebeteko antzinatasuna duten adin nagusikoentzat eta bizilekua aparkalekuaren eragin-eremuaren barruan zeukatenentzat epea ireki zenekoaren antzekoak dira. Eskainitako 95 plazetatik 26 eman ziren. Horregatik, gainerako 69ak ateratzen dira orain.



Baimenaren iraupena bi urtekoa izango da, kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori bi urtez luzatuko da, hau da, gehienez ere 4 urtez.

Aukeratutako aparkaleku-plaza bakoitzerako banakako tasa-prezio bat egongo da haren azaleraren arabera, hilean 65 eta 175 euro artekoa, eta OHZ ordaindu beharko da. Nahitaezko fidantza ezarriko da: tasaren bi hileko kuota, eta eskudirutan ordaindu beharko da.

Eskaera-eredu normalizatua herritarren eskura dago udalaren webgunean (www.getxo.eus) eta Herritarren Arretarako Bulegoetan.

Gainera, eskatzaileak indarrean izan beharko du gidabaimena, eta turismo baten titular edo erabiltzaile esklusiboa izan beharko du.

Mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuentzako lau plazetan interesa duten bizilagunek *Minusbaliatuentzako* aparkaleku-txartela eduki beharko dute eta ibilgailu bat izan beharko dute eskura.



## Bidezko Merkataritzako produktuen saskia emanda

***Getxo esnatzen da Bidezko Merkataritzako kafe eta kakaorekin*** **ekimenean aurten parte hartu zuten 46 ostalaritzako establezimendutan kafea eta kakao kontsumitu zuten pertsonen artean zozketatutako tokiko eta Bidezko Merkataritzako produktuen saskia Jorge Zamakola Atxarentzat (argazkian hirugarrena ezkerretik hasita) izan da, Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziaren eskuetatik jasota, edaria hartu zuen Algortako kafetegian. Jarduera pasa den azaroaren 18tik 24ra izan zen,** ***Getxotik Mundura Mundutik Getxora*** **ekimen solidarioan kokatuta, Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) lortzeko lanaren barruan, batez ere 1a (Pobreziari amaiera ematea), 5a (*****Berdintasunaren sustapena*****), 10a (*****Desberdintasunak murriztea*****) eta 12a (*****Ekoizpen eta kontsumo arduratsua*****).**

# Lanak Gobelaurreko sarean

Aste honetan hasi dira Gobelaurre eta Luis López Osés kaleen arteko bidegurutzean dagoen ur-hornidurako sarearen korapiloa berritzeko lanak. Lan hauek ez dute inolako eraginik izango ibilgailuen zirkulazioan, erreia estutzea izan ezik. Lanak amaitzeko epea 2 hilabetekoa da.
Jarduketa honen helburua da uraren hornidura bermatzea eta berrezartzea inguru horretan, eta etorkizunean sor daitezkeen esku-hartzeak ahalbidetzea, ondoren, lehen jarduketa hori egin eta gero, Luis López Osés kaleko hodia berritu ahal izateko.




# Euskararen Egunaren inguruko Adierazpena

Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatzen dela eta, Udaleko Bozeramaileen Batzordeak Adierazpen Instituzional bat onartu zuen EAJ/PNV, PP, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos taldeen aldeko botoekin, eta EH Bilduren kontrakoarekin. *Bat, bi...ehun! Euskararen Geroa ehunduz* izenburuarekin, Udalak nabarmendu zuen Euskararen ehuntze ariketa guztion ardura dela, erakunde publikoena eta gizarte eragileona; ekina ezinbestekoa dela eta euskarak mugimendua behar duela, bere-berea duen bizia mantendu eta geroz eta biziagoa izateko. Testua: https://labur.eus/BRJBc



**Kultur Etxearen “Getxo Eszena Irekia” deialdian hautatu zuten**

# “Hungría Hollywood” musika ikuskizuna entzungai larunbat honetan, hilak 14, Muxikebarrin

Botond Ódor tenorra, Luminita Duca pianista eta Lucia Astigarraga narratzailea izango dira *Hungría Hollywood* ikuskizunaren protagonistak. Larunbat honetan, hilak 14, 19:00etan, Muxikebarriko Areeta aretoan izango da ikusgai.
Harrigarria badirudi ere, XX. mendearen lehen erdian, Europa Ertaineko musika Hollywoodeko kultur industrian sartu zen. Kontinente zaharrean gainbehera zetorren sormen hori guztia amerikar lurraldean berpiztu zen, eta orain Botond Ódor tenorrak abesten ditu bere ama-hizkuntzan. Berarekin batera, Luminita Duca pianista ezaguna eta Lucía Astigarraga narratzailea izango dira, obrari testuingurua emango diotenak.
Ikuskizun honek 12 euro balio du eta Getxo Kulturaren *Getxo Eszena Irekia*-ren deialdian aukeratu zuten.

# Gospel kontzertua Areetan

Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan Gospel Bilbao abesbatzaren kontzertu solidarioa izango da larunbat honetan, hilak 14, 19:30ean. Gospel Bilbao abesbatza 2012an sortu zen eta 2016tik Alain Gallegok zuzentzen du.
Errezitaldiak 10 euroko sarrera izango du eta Ama Mesedeetako parrokiako Kartzela Pastoraltzako taldeak antolatu du, bildutako diru guztia Bidesari eta bere tutoretzapeko pisuetara bideratzeko. Bidesari irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, askatasunik gabe dauden pertsonek beren burua eta gizarteratzea berreskuratzeko bizi duten bazterkeria-egoerari erantzuteko sortua.

# “La Bruja Rechinadientes”

Katua@Galea Teatro izeneko konpainiak *La Bruja Rechinadientes* txotxongiloen muntaia eskainiko du, 4 urtetik gorakoentzat, igande honetan, hilak 15, 18:00etan, Muxikebarrin. Sorginei eta folkloreari buruzko ipuin klasikoetan oinarrituta, gai unibertsalak jorratzen dituzte, hala nola beldurra, ausardia eta maltzurkeria. Sarrera: 6€.



**Hiriburuen atzetik, Getxo da EAEn kultur jarduera handiena garatzen duen udalerria**

# Arte eszenikoen programazioan zifra errekor batekin itxiko du 2024a Getxo Kulturak

Abendua amaitzeke dagoela, Getxoko arte eszenikoen programazioak leku nabarmenean kokatzen du gure herria euskal kulturaren eszenan. Antzerki, musika eta dantzako 180 ikuskizun baino gehiagoko eskaintza bati esker, aurten publikoak aukera anitza izan du gure udalerrian.

Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzen programak horixe bera baieztatzen du. Izan ere, lurralde historikoaren eremuan, Getxo Kultura izan da Bizkaiko hiru erakunde publikoetako bat zuzeneko ikuskizunetarako laguntzen gehieneko zenbatekoa jasotzen (59.000 euro), eta bigarrena katxet-en aurrekontuari dagokionez, 820.000 euro baino gehiagorekin. Getxo, beraz, Bilboko Arriaga Antzokia (4.454.000 euro) eta Barakaldo Antzokiaren artean kokatzen da (352.000 euro) atal horretan.

Halaber, Euskal Kultura Behatokiak argitaratutako datuen arabera, Getxo laugarren postuan dago programatutako kultura-ekitaldien guztizko kopuruari dagokionez (zuzeneko arteak, zinema eta jarduera soziokulturalak), probintziako hiru hiriburuen atzetik soilik.



## Dama iratxoa, agertokian

**Muxikebarrik Mic Producciones konpainiaren *La dama duende* antzezlana taularatuko du larunbat honetan, hilak 14, 20:00etatik aurrera. Helduei zuzendutako obra da eta sarrerak 10 euro balio du. *La dama duende* pisu batean giltzapetuta dagoen emakume baten istorioa da, eta ekintzaren zati handi bat ilunpetan garatzen da. Muntaia honek 1942ko Madrilera garamatza, non argitu gabeko hilketak eta misterioak ugaritzen ari diren, bai eta Fuencarral kalera eta hango argi gutxiko pisu-ilaretara, agertutakoen eta sacamantecasen Literaturara, *El Caso*-n argitaratutako istorioen eta irratiko kontakizun beldurgarrien literaturara.**







## Mikel Sorlik “Indianoaren alaba” aurkeztu du

**Mikel Sorli getxotarrak *Indianoaren alaba* izenburuko liburua aurkeztu du Algortako Kultur Aretoan. Liburuari izenburua ematen dion ipuina da, eta Rosaren desagerpen misteriotsua kontatzen du, itsasoz bestaldean aberastutako eta jaiotzen ikusi zuen Kantauriko kostaldeko herri txikira itzuli den indiano baten alaba. Liburuak hainbat tamainatako ipuinak biltzen ditu (garai eta eduki desberdinetako fikziozko istorioak). Horietako zazpik, luzeenek, epigrafe bana hartzen dute, eta gainerakoek, 19 guztira, istorio laburragoak jasotzen dituzte, esparru-eduki batean bilduta.**

# Argia Fundazioak “Eguberri partekatua” antolatu du

Bigarren urtez jarraian, Argia Fundazioak, Udalarekin elkarlanean, *Eguberri partekatua* ekimena jarriko du abian aurten ere, hainbat arrazoi direla medio egun horiek ospatzeko aukerarik ez duten pertsonak mahai baten inguruan bildu ahal izateko, beste lagun batzuekin batera, menu bat jateko aukera izan dezaten.

Aurten, ospakizuna datorren igandean, abenduak 22, izango da, 11:00etatik aurrera, Argia Fundazioaren egoitzan, hau da, Algortako Trinitate kaleko 11. zenbakian. Bertan bazkariaz gain, musika eta hainbat ekintza ere eskainiko dituzte.

Ekimenaren helburua izango da ehun pertsona ingururi topagune bat eskaintzea, iaz lortu zen bezala. Horretarako, Argiak boluntarioen laguntza eskatzen du, hainbat modutara: bai egun horretan denbora emanez, bai egunean zehar tailerren bat aurrera eramanez edo funtsak emanez.

Proiektu solidario honetan parte hartu nahi duten pertsonak Fundazioarekin harremanetan jar daitezke 686 10 05 29 telefono zenbakiaren bidez.



# Argia Fundazioaren Alehop programa eta Aitor Arri Errugbi Inklusiboko fundatzailea, 2024ko Boluntariotza sariak

Argia Fundazioaren Alehop osasun mentalari buruzko sentsibilizazio programak 2024ko Boluntariotzaren saria jaso du, modalitate kolektiboan, eta Aitor Arri Axpe Errugbi Inklusiboa proiektuaren sortzaile eta arduradunak, banakako modalitatekoan, beren ibilbidea goraipatzeko. XXXI. edizioaren sariak SAREKIDE Getxoko erakunde boluntarioen elkarteak, Udalarekin lankidetzan, eman zituen Romo Kultur Etxean asteartean, hilak 10, ospatutako ekitaldi batean. Gainera, bertan Sarekidek eta Udalak Juan Jose Quiñones Rodriguezen lanaren aitortza egin zuten, 13 urteren ondoren presidentzia utzi eta Idoia Loroño Goienetxe, AHIDA elkarteko kidearen eskutara pasa delako aurten. Topaketan Keltse Eiguren lehen alkate ordea eta Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotzia izan ziren, beste erakunde batzuetako ordezkarien artean. Diazek boluntarioen lana goraipatu zuen, eta nabarmendu zuen "*beren denbora beste batzuei eskaintzen dieten boluntarioak edukitzea opari eta pribilegio bat da, mundu humanistagoa eraikitzeko bide bakarra. Horregatik du zentzua boluntariotza ospatzeak, konpromiso soziala ospatzeak, aitortzeak, eskertzeak eta balioa emateak* ".

Alehop programak buruko gaixotasuna duten pertsonei lotutako estigmen aurka borrokatzen du, ikastetxeetan, elkarteetan, komunikabideetan, eta baita eragile sozialei eta politikoei ere eskainitako hitzaldien bidez. Hiru emakume eta hiru gizon boluntariok urtean 30 bat hitzaldi, batez beste, eskaintzen dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat lekutan.

Bestalde, Aitor Arri Axpe Getxo Errugbia Klubeko Errugbi Inklusiboa proiektuaren sortzaile eta arduraduna da. Proiektua 2016an sortu zen, errugbiaren bidez adimen-urritasuna duten pertsonen inklusioari ate bat irekitzeko, Galesen abian jarritako esperientzia ezagutu ondoren. Belaunaldien arteko eta kulturen arteko proiektu horrek aniztasunaren aldeko apustua egiten du balio gisa eta antzeko proiektuak abian jartzeko erreferentzia izan da estatuan.

## KIROLAK

# Getxoko Gabonetako XIV. Zeharkaldia

Datorren abenduaren 22an (igandea), Getxo Igeriketa Waterpolo klubak, Getxo Kirolak udal erakundearen lankidetzarekin, Getxoko Gabonetako XIV. Itsas Lasterketa antolatuko du, igerian egiteko lasterketa, Portu Zaharraren eta Ereagako hondartzaren artean. Lasterketa 300 metrokoa izango da, eta 11:30ean hasiko da. Kategoria absolutua eta beteranoena lehiatuko dira.
Interesatuek lehiaketaren oinarri guztiak kontsultatu eta izena eman dezakete, hilaren 18a (asteazkena) baino lehen, www.getxoiw.com webgunean.





## 2024ko Abrako belaren egutegia itxiko du “Regata del Gallo” estropadak

**_Regata del Gallo_ estropada tradizionalak itxiko du datorren larunbatean, hilaren 21ean, 2024garren urteko bela-egutegia Abrako uretan. Marítimo Elkarteak (RCMA-RSC) antolatuta, Udalarekin elkarlanean, beste erakunde batzuen artean, probak ia bostehun nabigari eta ehun itsasontzi inguru bilduko ditu. Irteeran zehar, Zubi Esekiaren azpitik nabigatuko dute berriro, eta Bizkaiko kirol honen irudi ikusgarri eta klasiko bat eskainiko diote jende guztiari, haizetara zabaldutako kolorezko haize-oihal zabalekin. Gainera, 12:00etan hasiko den Kurtzero eta J80 klaseetako estropadaz gain, Bizkaia Zubiko bi terrazetan (Areetakoan eta Portugaletekoan, 11:00etatik 12:30era) korapiloen tailerra egingo da eta José Luis de Ugarte Bela Eskolako nabigari gazteek Optimist klaseko ontzien erakustaldia eskainiko dute (12:30etik 13:00etara).**

# Itxas Argiaren XLII. Andra Mariko Krosa

Itxas Argia Elkarteak antolatuta, Andra Mari Krosaren XLII. edizioa egingo da abenduaren 29an (igandea), 11:00etatik aurrera. Herri-lasterketa honek 8,8 kilometroko luzera dauka eta Andra Mariko kiroldegian hasi eta amaituko da. Ordu erdi lehenago, 10:30ean, 2010. urtetik aurrera jaiotako haurrentzako lasterketa hasiko da; 2,5 kilometrokoa da umeentzako lasterketa hori. www.itxas-argia.com webgunean edo elkartearen Facebookeko edo Instagrameko sare sozialetan eman daiteke izena abenduaren 25era arte.

